

## ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

### 2019ko Aurrekontu Plana

2018ko urriaren 15eko Ministro Kontseiluak **aurrekontu-planaren** zirriborroa eta agertoki makroekonomiko berria onartu zituen, eta Europako Batzordera bidali ziren.

Ministro Kontseiluaren webean publikatutakoa: "Aurrekontu Planaren zirriborroak hiru helbururi ekiteko aukera ematen du: diziplina fiskala betetzea (lehenengo aldiz, defizita jaitsiko da, ez bakarrik koijuntura ekonomikoagatik, baizik eta Gobernuaren ekintzagatik ere bai); herritarrekiko konpromisoa betetzea, zerga-politikaren birbanatze-funtzioa errekuiperatuta; eta ekonomiaren jasagarritasuna epe luzera mantentzea (lehenengo aldiz 2007 urtez geroztik, Espainiak superabit fiskal primarioa edukiko du, eta zor publikoa esanguratsuki hasiko da jaisten)."

[Informazio gehiago.](#)

### Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoaren aurreproiektua.

Proiektu hori joan den urriaren 18an onartu zen Diputatuen Kongresuko osoko bilkuran, eta egun horretan bertan bidali zen Senatura. Ganbera horretan zuzenketak aurkezteko epea azaroaren 5ean bukatzen da.

[Diputatuen Kongresuan onartutako  
Lege Proiektuaren testua](#)

### Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurrien lege-proiektua.

Lege-proiektua Kongresuaren Berdintasun Batzordean aztertzen da. Zuzenketak aurkezteko epea 2018ko urriaren 26ra arte luzatu dute.

[Lege-proiektuaren testua](#)

### Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen proiektua 2019ko ekitaldirako

Gobernu Kontseiluak, joan den urriaren 23ko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko 2019rako Aurrekontu Orokorren Proiektua onartu du, guztira 11.784,1M/€. Aurrekontu-proposamen hori hazkunde ekonomikoa nahiko egonkorra izaten ari den testuinguruan onartu da, nahiz eta dezelerazio txiki bat ere badagoen. Gehikuntza absolutua 297,7 M-koa izan da, hau da, 2018an baino % 2,6 gehiago. Baina, kontuan hartu gabe zorraren amortizazioa eta "Y"aren eta hegoaldeko trenbide-saihesbidearen efektua, aurrekontu-analisiaren ondorioetarako 371M-ko gehikuntza egon da; beraz, eta aurreko urtearekin alderatzen badugu, benetako hazkundera % 3,6koa izan da.

[Proiektuaren testua](#)

### Beste dokumentu interesgarri batzuk

### Doktrina-azterlanak

- *¿Re-municipalizar servicios? La opinión de los alcaldes*, Egilea: Carmen Navarro Gómez. Publikazioa: IDL-AUM blogean, 2018ko urriaren 25ean.

- *Protección de datos y derechos digitales*, Egilea: Rafael Jiménez Asensio. Publikazioa: egilearen blogean, 2018ko urriaren 22an.

- *El silencio positivo en las leyes autonómicas de transparencia es inconstitucional por invadir la competencia estatal: STC 4/10/2018*, Egilea: Miguel Ángel Blanes. Publikazioa: 2018ko urriaren 18an.

- **Informe de impacto de género y planeamiento urbanístico: cuando el TSJ de Madrid crea normas procedimentales**, Egilea: Francisco Velasco Caballero. Publikazioa: IDL-AUM blogean, 2018ko urriaren 10ean.

- **Audencia en la elaboración de las ordenanzas locales: inconstitucionalidad e inaplicabilidad de la Ley 39/2015**, Egilea: Francisco Velasco Caballero. Publikazioa: IDL-AUM blogean, 2018ko urriaren 10ean.

- **¿Cómo afecta el RGPD a la práctica de las notificaciones electrónicas?**, Egilea: Concepción Campos Acuña. Publikazioa: egilearen blogean, 2018ko urriaren 4an.

### Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- **La opción por el recurso especial en materia de contratación no tiene vuelta atrás en vía contencioso administrativa**, Egilea: Carlos Melón Pardo. Publikazioa: Kontratazio Publikoaren Behatokia, 2018ko urriaren 15ean.

- **¿Estar inscrito en el ROLECSP para participar en un procedimiento abierto supersimplificado?**, Egilea: Patricia Valcárcel Fernández. Publikazioa: Kontratazio Publikoaren Behatokia, 2018ko urriaren 1ean.

- **El riesgo operacional ¿una nueva era para los contratos de concesión? Convenios administrativos: régimen transitorio de adaptación**, Egilea: Ximena Lazo Vitoria. Publikazioa: La Administración al Día, INAP, 2018ko irailaren 27an.

- **Apuesta por una revisión estratégica del modelo concesional: punto de partida y planteamientos de futuro**, Egilea: Patricia Vacárcel Fernández. Publikazioa: La Administración al Día, INAP, 2018ko irailaren 27an.

- **Convenios administrativos: régimen transitorio de adaptación**, Egilea: Rafael Jiménez Asensio. Publikazioa: La Administración al Día, INAP, 2018ko irailaren 20an.

- **104/2018 Epaia, Gaztela-Leongo Kontratazio Errekurtsoen Epaimahaia**. Proposamenak aurkezteko, bitarteko elektronikoen erabilera exijitzea: SPKLa, izaera bereziko legea. Esperientzia, esleipen-irizpide bezala: zer kalitate duten kontratua egikartzeko lizitatuak proposatutako ekipoek. Baldintza-orrien deuseztasuna.

### EUDELek udaletako kontratu ohikoaren ereduzko 22baldintza-orri egin ditu.

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak **KONTRATAZIO ESKULIBURUAREN** edizio eguneratu bat argitaratu du, Sektore Publikoko Kontratuen Lege berrira egokitua. Administrazio-klausulen 22 ereduzko baldintza-orri, izapideak errazteko eta udalei kontratazio-prozeduretan ziurtasun juridiko handiagoa emateko.

### Finantza Publikoen Euskal Kontseilua (2018ko urria)

- Joan den urriaren 11n, bere bigarren bilera egin zuen Finantza Publikoen Eusko Kontseilua, zeina osatzen baitute Eusko Jaurilaritzak, hiru foru-aldundiak eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak –Eudeletik hiru ordezkari hartzen dute parte kontseiluaren mahaian, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalen izenean, bat lurralde bakoitzeko. [Informazio gehiago](#).

### Arabako Toki Administrazioiko eta Finantzetako Lurralde Kontseilua

Arabako Toki Administrazioiko eta Finantzetako Lurralde Kontseilua 2018ko urriaren 16an bildu zen, aditzera emateko zein diren datu eguneratuak Finantza Publikoen Eusko Kontseilua aurreko astean, urriaren 11n, bildu ondoren. Bilera bukatu ostean, EUDELen ordezkariak eta Arabako Foru Aldundiak erabaki dute lurraldeko toki-entitateei informazio hau ematea:

- Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funttsaren (TEFFF) Likidazioari buruzko aurreikuspenak 2018ko ekitaldirako.  
- Funtts horren konturako entregak 2019ko ekitaldirako.

[Informazio gehiago](#)

### Bizkaiko Finantzetako Lurralde Kontseilua

Bizkaiko Finantzetako Lurralde Kontseilua 2018ko urriaren 17an bildu zen, arratsaldean, eta 2019an lurraldeko udalerriei entregatuko zaizkien funtsen estimazioa onartu zuen, zeina 869,1 milioi eurora iristen baita oro har. Kopuru hori konparatzen badugu aurreko urteko banatutako funtsekin –Udalkutxaren aurrekontua 819,3

milioikoa da–, Bizkaian itundutako zergen bidez bildutakotik % 6,1 gehiago emango zaie udalei. Azken hamarkadaren bilakaerari erreparatuta, gehikuntza nabarmena egon da Udalkutxaren bidez banatzen den diruan –%22–, 2010eko ekitaldian 712,5 milioi banatu baitziren.

[Informazio gehiago](#)

### Gipuzkoako Finantzetako Lurralde Kontseilua

Gipuzkoako Finantzetako Lurralde Kontseilua 2018ko urriaren 16an bildu zen, Donostian, eta berretsi zuen lurraldeak egoera ekonomiko ona bizi duela, UFFF-Udalen Finantzaketarako Foru Fondoak 2018an izango duen aparteko dotazioak erakusten duen bezala. Zehazki, 500 milioi euroko barrera lehen aldiz gainditu, eta 504 milioira iritsiko da, hau da, azkeneko Finantzen Euskal Kontseiluan onartutako aurreikuspenen arabera, aurreikusi baino 18 milioi gehiago. Hala jakinarazi zaie gaur Gipuzkoako udalen ordezkariari Gipuzkoako Finantzetako Lurralde Kontseiluan.

[Informazio gehiago](#)

### EUDELek diagnostiko bat bultzatzen du udalekin, elkarrekin aurrera egiteko hala berrikuntzan nola udal-zerbitzu adimentsuen arloan (Smart Cities)

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarte Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean ari da ekintza estrategiko eta aholkularitza tekniko plan batean, 2020ko Agenda Digitala EAEko tokiko administrazioetara helarazteko.

[Informazio gehiago](#)

## XEDAPEN ARAUTZAILEAK

 logoboe2009

### Estatuko legeria

**15/2018 Errege Lege Dekretua, urriaren 5koa**, Trantsizio Energetikorako eta Kontsumitzaileen Babeserako Presako Neurriena. (2018ko urriaren 6ko BOE, 242. zk.).

**14/2018 Errege Lege Dekretua, irailaren 28koa**, zeinaz aldatzen baita Balore Merkatuei buruzko Legearen testu bategina, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuz onartua. (2018ko irailaren 29ko BOE, 236. zk.).

**13/2018 Errege Lege Dekretua, irailaren 28koa**, zeinak lurreko garraioa antolatzen duen uztailaren 30eko 16/1987 Legea aldatzen baitu ibilgailuak gidariarekin errentatzeari dagokionez (2018ko irailaren 29ko BOE, 236. zk.).

 BOPV-  
logo\_gobierno\_homes

### Euskadiko Autonomia Erkidegoa

**117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa**, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoarena. (EHAA, 171 zk.; 2018ko irailaren 5a).

 BOPV-  
logo\_gobierno\_homes

### Arabako Lurralde Historikoa

**3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua**, urriaren 23ko Foru Gobernu Kontseiluarena. Onartzea Arabako Lurralde Historikoko zerga-araudia egoki dadin Ekonomia Itunean abenduaren 28ko 10/2017 Legearen bidez egindako aldaketetara (2018ko abuztuaren 31ko AAO, 125 zk.).

**15/2018 Foru Araua, irailaren 26koa**, zeinaz baliozkotzen baita irailaren 11ko 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Arabako zerga araudiari egokitzeko balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergan eta berandutze-interesean egindako zenbait aldaketa. (2018ko abuztuaren 8ko ALHAO, 91. zk.).

**14/2018 Foru Araua, irailaren 14koa**, zeinaz aldatzen baita Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia. (2018ko irailaren 28ko ALHAO, 112. zk.).

**13/2018 Foru Araua, irailaren 14koa**, zeinaz aldatzen baita

Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia. (2018ko irailaren 28ko ALHAO, 112. zk.).

**2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua**, irailaren 11ko Foru Gobernu Kontseiluarena. Onartzea Arabako zerga-araudira egoki dadin balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergetan eta berandutze-interesetan egindako zenbait aldaketa. (2018ko irailaren 19ko ALHAO, 108. zk.).

**47/2018 Foru Dekretua, irailaren 18ko Foru Gobernu Kontseiluarena**. Onartzea abenduaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 61/2017 Foru Dekretuaren aldaketa –61/2017 Foru Dekretua, zeinak onartzen baitu Toki Erakundeak Finantzatzeke Foru Funtsetik kuadrillei dagozkien partaidetzak banatzeko metodologia (2018ko irailaren 24ko ALHAO, 110. zk.).



#### Bizkaiko Lurralde Historikoa

**3/2018 Araugintzako Foru Dekretua**, urriaren 9koa, zeinak arau hauek aldatzen baititu: 7/1994 Foru Araua, azaroaren 9koa, Balio Erantsiaren Zergari buruzkoa; 7/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Joko Jardueren Zergari buruzkoa; 5/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Berotegi Efektuko Gas Fluordunen Zergari buruzkoa, eta 12/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zergari buruzkoa. (2018ko urriaren 19ko BAO, 202. zk.).

**130/2018 Foru Dekretua, 2014ko apirilaren 8koa**, Bizkaiko Foru Aldundiarena, zeinak aldaketak egiten baititu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian eta Sozietateen Zergaren gaineko Araudian. (2018ko urriaren 19ko BAO, 202. zk.).



#### Gipuzkoako Lurralde Historikoa

**4/2018 Foru Araua, irailaren 27koa**, zeinak aldatzen baitu Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2018rako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 26ko 3/2017 Foru Arauaren 12.1 artikulua. (2018ko urriaren 4ko GAO, 192. zk.).

**23/2018 Foru Dekretua, abenduaren 11koa**, zeinak aldatzen baitu urriaren 27ko 32/2009 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarteratze Gaietako Aholku Kontseilua Sortu eta Arautzekoa. (2018ko irailaren 20ko GAO, 182. zk.).



#### Nafarroako Foru Komunitatea

**19/2018 Foru Araua, urriaren 10ekoa**, zeinak onesten baitu Inbertsio Finantzarioki Jasangarriari buruzko Plana (2018ko urriaren 11ko NAO, 198. zk.).

**18/2018 Foru Legea, abenduaren 10ekoa**, zeinaz aldatzen baita 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzekoa (2018ko urriaren 19ko NAO, 203. zk.).

### BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUETAKO LEGERIA TOKIKO EREMUARI BURUZ

#### ANDALUZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **10/2018 Legea, urriaren 9koa, Andaluziako Ikus-entzunezkoei buruzkoa**. (2018ko urriaren 16ko BOJA, 200. zk.).
- **9/2018 Legea, urriaren 8koa**, zeinaz aldatzen baita azaroaren 26ko 12/2007 Legea, Andaluzian genero-berdintasuna bultzatzekoa (2018ko uztailaren 13ko BOJA, 135. zk.).
- **8/2018 Legea, urriaren 8koa**, zeinaz ezartzen baitira Andaluzian klima-aldaketari aurre egiteko eta eredu energetiko berri baterako trantsizioa egiteko neurriak. (2018ko 2018ko urriaren 15a BOJA, 199. zk.).

#### ARAGOKIO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **10/2018 Legea, irailaren 6koa**, Ondoretzen eta Dohaintzen gaineko zerga-neurriena (2018ko irailaren 20ko BOA, 183 zk.).

#### ASTURIASKO PRINTZERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **8/2018 Legea, irailaren 14koa**, Asturiasko Printzerria, Gardentasunari, Gobernu Onari eta Interes Taldeei buruzkoa (2018ko irailaren 24ko BOPA, 222. zk.).

#### BALEAR IRLAN AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **9/2018 Legea, uztailaren 31koa**, zeinaz aldatzen baita abuztuaren 17ko 12/2016 Legea, Balear Irletak ingurumen-ebaluazioari buruzkoa. (2018ko abuztuaren 7ko BOIB, 97. zk.).

- **8/2018 Legea, uztailaren 31koa**. (2018ko abuztuaren 7ko BOIB, 97. zk.).

#### GAZTELA-MANTXAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **4/2018 Legea, urriaren 8koa**, Gaztela-Mantxako genero-indarkeriarik gabeko gizarte baten aldekoa. (2018ko urriaren 15eko DOCM, 201. zk.).

#### GAZTELA-MANTXAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **3/2018 Dekretu Legea, abuztuaren 30ekoa**, zeinaz ordainsarien igoera gaitzen baita eta aldi baterako ezintasun-egoeran dauden sektore publikoko langileei %100 ordaintzeko dauden mugak ezabatzen baitira. (2018ko irailaren 3ko BOCyL, 170. zk.).

#### EXTREMADURAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOA

- **8/2018 Legea, urriaren 23koa**, Extremadurako Merkataritza Ibiltariari buruzkoa. (2018ko urriaren 26ko DOE, 209. zk.).

- **7/2018 Legea, abuztuaren 2koa, Extremadurakoa**, Aisi-instalazio Handiei buruzkoa (LEGIO). (2018ko abuztuaren 6ko DOE, 152. zk.).

- **6/2018 Legea, uztailaren 12koa**, uztailaren 12koa, zeinaz aldatzen baita urtarrilaren 31ko 2/2011 Legea, Extremadurako turismoa garatzekoa eta modernizatzekoa. (2018ko uztailaren 16ko DOE, 137. zk.).

#### MADRILGO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **4/2018 Legea, urriaren 3koa**, zeinaz aldatzen baita otsailaren 22ko 1/2018 Legea, Madrilgo Erkidegoko Toki Poliziak Koordinatzekoa (2018ko urriaren 17ko BOCM, 248. zk.).

#### MURTZIA ESKUALDEA

- **9/2018, urriaren 11koa, zeinaz aldatzen baita martxoaren 16ko 4/2007 Legea, Murtzia Eskualdeko Autonomia Erkidegoaren Kultur Ondarearena**, (2018ko urriaren 20ko BORM, 243. zk.).

#### VALENTZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **21/2018 Legea, urriaren 16koa**, Generalitatearena, Valentziako Erkidegoko Mankomunitatei buruzkoa. (2018ko urriaren 19ko DOGV, 8406. zk.).

## JURISPRUDENTZIA

### Konstituzio Auzitegia

**2018ko urriaren 17ko epaia**. Osoko Bilkura. Konstituzio Auzitegiko Osoko Bilkurak epai hau eman du: "emakume langilearen amatasun-baimena, zeina dagokion gizarte-segurantzaren prestazioarekin batera ematen baita, gizonarena baino iraupen handiagokoa izateak ez du gizonarekiko diskriminaziorik sortzen. Amatasuna, haurdunaldia eta erditzea errealitate biologiko berezituak dira, nahitaezko babes eskatzen dutenak, zeinak bere baitan hartzen baitu amen babes osoa. Beraz, emakumearentzat ezartzen diren abantailak ezin dira gizonarekiko diskriminatzailetzat jo.".

**2018ko urriaren 4ko epaia**. Osoko Bilkura. Konstituzio Auzitegiko Osoko Bilkurak erabaki du baieatea konstituzio-kontraktotasunaren arazoa, Aragoiko Justizia Epaitegiko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auziekiko Salaren lehenengo sekzioak aurkeztua Gardentasunari, Jarduera Publikoari eta Herriarren Partaidetzari buruzko martxoaren 25eko 8/2015 Legearen 31.2 artikulua aurka, eta deuseza deklaratzeko hala edukia nola errubrikan jasotako "isiltasunaren esanahia" espresioa. Boto partikularra.

**97/2018 epaia, 2018ko irailaren 19koa**. Osoko Bilkura. 1643-2016 konstituzio-kontraktotasuneko errekurtsioa. Jarduneko Gobernuaren presidentek jarria EAeko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen hainbat aginduren aurka. Eskumenak, berdintasunaren, legeria zibil eta prozesalaren, ekonomia-antolamendu orokorraren, nahitaezko desjabetzearen eta etxebizitzaren oinarriko baldintzen gainekoak; arbitrariotasun-debekurako eta berdintasunerako printzipioak eta erugabetasun-presuntziorako, zehapen-legerako eta jabetzarako eskubideak: etxebizitza-arloan ekintza publikoa erregulatzen duten lege-agindu autonomikoen deuseztasuna eta etxebizitzaren erabilera aldi baterako desjabetzea, etxebizitza hipoteka-exekuzioaren ondoriozko etxebizitza-prozedura batean sartuta dagoenean; higiezinaren agente edo agentzien erkidegoko administrazio-erregistroari buruzko xedapenaren arabera interpretatzea.

**96/2018 epaia, 2018ko irailaren 19koa**. Osoko Bilkura. 4284-2014 eskumeneko gatazka positiboa. Eusko Jauriaritzak planteatu zuen, Lehen Hezkuntzako oinarriko curriculum ezartzen duen otsailaren 28ko 126/2014 Errege Dekretuaren agindu batzuei buruz. Hezkuntza-eskumenak: estatuaren eskumenak modu egokian baliatzea enbor-irakasgaiak eta irakasgai espezifikoko erregulazioetan, baita etaparen amaierako ebaluazio-proben ezaugarri orokorrak zehaztean ere.

### Auzitegi Gorenaren

1426/2018 Epaia, 2018ko irailaren 26koa, Auzitegi Gorenaren.

Administrazioarekiko Auzietako Sala. Gasteizko Udaleko bitarteko funtzionarioa. Abusuzko egoera, non hasierako izendapen bat egon zen, eta geroago beste bat, enplegu-harremana 14 urtez jarraian mantendu zuena, ez aldi baterako premiak betetzeko, baizik eta udal plantillari dagozkion eginkizun iraunkor eta egonkorak egiteko. 1999/70/EE Zuzentarauari erantsitako Esparru Akordioaren 5. klausula. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, 2016ko irailaren 14koa, metaturiko gaiak C-184/15 eta C-197/15. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia. Efikazia zuzeneko eta lehentasunezko printzipioak. Antzeko legezko neurriak ez betetzea. Ondorio juridikoak. Aplikatzen diren irizpideak.

**1425/2018 Epaia, 2018ko irailaren 26koa.** Auzitegi Gorenarena.. Administrazioarekiko Auzietako Sala. Osasun-zerbitzuetako aldi baterako langile estatutarioak, behin-behinekoak. Euskadi. Abusuak izendapen edo luzapenetan. 1999/70/EE Zuzentarauari erantsitako Esparru Akordioaren 5. klausula. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, 2016ko irailaren 14koa, metaturiko gaiak C-184/15 eta C-197/15. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia. Efikazia zuzeneko eta lehentasunezko printzipioak. Ondorio juridikoak. Aplikatzen diren irizpideak. Errekurtsoa partzialki baiestea.

## TOKI-ESPARRUA EUROPAN



**Europa indartsuago eta inklusibo bat lortzea, ikasleen mugikortasuna, sorkuntza, boluntarioria eta eraldaketa digitala bultzatuz**

Urriaren 18an, SEDEC Batzordeak, zeina Europako Eskualdeetako Lantaldeko (EEL) Gizarte Politikaren, Hezkuntzaren, Enpleguaren, Ikerketaren eta Kulturaren arduraduna baita, lau iritzi onartu zituen EBren 20121-2027 urte anitzeko aurrekontuko programa ezberdinei buruz.

[Informazio gehiago  
\(ingelesez\)](#)



**Hezkuntza digitala eta mugikortasuna, denon esku egon behar luketen aukerak.**

Europako Eskualdeetako Lantaldearen arabera, estatu kideetan eta eskualdeetan, hezkuntzako politika estrategikoei lehentasuna eman beharko lioke gobernantza-maila guztietako lankidetzari, kalitate handiko hezkuntza berritzaile, digital eta ikasleetan zentratuak eta lan-merkatuko premia berriek bat egin dezaten.

[Informazio gehiago](#)

Europako Eskualdeetako Lantaldearen irizpena:


- (2018/C 361/06) — **Europako Eskualdeetako Lantaldearen irizpena— Kultur ondarea, EBko eskualdeak kohesionatuagoak eta jasangarriagoak izateko baliabide estrategiko gisa.** (2018ko urriaren 5eko EBAO).

- (2018/C 361/07) —**Europako Eskualdeetako Lantaldearen irizpena— EBko Babes Zibileko Mekanismoaren berrikuspena.** (2018ko urriaren 5eko EBAO).

- (2018/C 361/08) **Europako Eskualdeetako Lantaldearen irizpena— Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, giza kontsumora bideratutako uren kalitateari buruzko.** (2018ko urriaren 5eko EBAO).

- (2018/C 283/01) — **Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena: «Gizarte ekonomiako enpresak, migranteen integrazioaren eragile»** (2018ko abuztuaren 10eko EBAO).

## ARGITALPENAK



**Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri Ereduen Bilduma**

Administrazio Kontratazioaren Eskuliburua  
EUDEL  
Edizio eguneratua, 2018

[Deskargatu](#)



**Pertsonak eta Antolakunde Publikoak**

#### Kudeatzeko Euskal Aldizkaria

2. zk. Berezia.  
Iraila, 2018  
IVAP

[Deskargatu](#)

 NAP\_PLG

#### Políticas Locales de Clima y Energía: teoría y práctica

Argitaratzailea: Susana Galera Rodrigo  
INAP, Madrid, 2018

[Informazio  
gehiago](#)

 REALA\_10

#### Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica

Nueva Época, 10. zk.  
2018, urria  
INAP, Madrid

[Deskargatu](#)

 Dialogo

#### Diálogo sobre ciudades sostenibles

La gobernanza urbana en el núcleo de la  
implementación del ODS 11  
UCGL  
Urria, 2018

[Informazio  
gehiago](#)

 CEMCI\_W

#### Problemas y soluciones al empleo público actual. Una valoración a los 10 años de la aprobación del EBEP

Egilea: Jorge Fondevila Antolín  
Colección Análisis y Comentarios, 52. zk.  
CEMCI, 2018

[Informazio  
gehiago](#)

 Carta\_Local186

#### Carta Local, 316. zk.

II Congreso de despoblación  
Iraila, 2018  
Federación Española de Municipios y  
Provincias (FEMP)

[Deskargatu](#)

#### DEIALDI INTERESGARRIAK

 CoBCP18

#### II Congreso Anual del Observatorio de Contratación Pública

Por una Contratación Pública Transparente y  
Sostenible

**Tokia:** Universidad de Barcelona  
**Data:** 2018ko azaroaren 13 eta 14a

[Informazio  
gehiago](#)

 logo\_foro

#### Foro Nueva Administración

Transformando personas, equipos talento y  
cultura

**Tokia:** Centro de Arte, Alcobendas, Madrid  
**Data:** 2018ko azaroaren 13 eta 14a

Informazio  
gehiago



### 18ª Conferencia Internacional En Barcelona

Democracia Directa e iniciativa ciudadana.  
Hacia un ecosistema de democracia Inklusiva  
**Tokia:** Barcelona  
**Data:** 2018ko azaroaren 25, 26 eta 27an.

Informazio  
gehiago



### Gestión Inteligente de ciudad e-GIC 2018

**Tokia:** Benalmádena  
**Data:** Azaroaren 22 eta 23a

Informazio  
gehiago